

BERTSOETAN

MINTZATZEN

*Euskera, zure ederra zer da?
Itzaren jakituria...?
Itz barnean maitasun ezia?
Zure nortasun garbia...?*

*Itzik ederrenak elkarturik,
izkuntzarik garaiena,
gizonik gizon dabil euskera
izkuntza arrigarriena.*

*Eztia dozu itz gardenetan,
loretan dagon gozoa,
gizonak biurtu dira erle,
maitasun biotz osoa.*

*Jakintsuak arritu dituzu.
Munduko izkuntza artean
bitxi illezkor aundia ei zara
itz arrigarrienean.*

*Miin garbia biotzeen iturri,
itz garden, non, sortu zara...?
Jakituriaren tontorretik
zatoz euskaldun plazara.*

*Euzkotarrean mintzaira bakaiña
urretxindorra iduri,
mendietako etxe zuriak
txori ta itzak kantari.*

*Zure izki bakoitza, dardaraz,
izar argia iduri,
eguzkia baiño ederrago
zure barneko itz zuri.*

*Gizontasuna agiri da zugan,
euskaldunak dariona,
euzkotarrean edertasun oro,
mintzairarik garbiena.*

*Euskeraren bizitza indarra,
zer da zure sormenean?
Aita ta ama ain eder al dituzu
bitxi guztien artean?*

*Olerkariak gogoko ditut,
itzaren maisu argiak,
euskal gozotasuna batu dau
lorerik lore erliak.*

*Euskaldun da gure baserria.
Lurrak euzkotar mintzatzen.
Erleak lorerik lore doaz
euskal ezta batzen.*

*Maztitik dator ardo gozoa
bizia mozkortu nairik,
nire bizia eta indarra
biztu euskeraz jantzirik.*

*Euskeraz mintzatzen dau kanpaiak
mendiko eliza zarrean,
garo usaia euskeraz doa
dorrean zear aidean.*

PAULIN

"KILI-KILI EGUNA 80"

•
Orrillaren 25'ean, Iruñan.
Euskallerriko 20.000 ume joango dira.
Euskera berbetan ba-dakie.
Ez irakurten eta idazten.
Umeakaz batera, gurasoak eta irakasleak.
Amaika ta erdietan, Yanguas kalean.
Dantzak, abestiak, txistua, kirolak, sariketak, margo-lanak...
"Agur jaunak" gero eta etxera barriro.
•

